

5 ASTEAZKENA

12:00etan.- Erregeek hauren gutunak jasoko dituzte. Loinazko San Martin plazan.

18:15ean.- Erregeen zamalkada herriko kaleetan zehar.



"Erregeak" 2011. Luisa Zurutuza.



7 LARUNBATA

19:00etan.- VI. Gospel zikloa: The Upper Room Gospel. Igartza jauregian.

13 OSTIRALA

19:30ean.- Antzerki Garaia: "Crimen perfecto".

22:30ean.- Antzerki Garaia: "Crimen perfecto". Usurbe Antzokian.

14 LARUNBATA

16:30etik-19:00etara.- **LUDOTEKA IBILTARIA IGARTZA AUZOAN.** Aisihezi aisialdi elkarteak eta Beasaingo Udalak antolatuta. Ludotekako txoko ezberdinak egoteaz gain, psikomitritizatekoa, eskulaneakoa, mahai jolasak, komikiak edota eraikuntza txokoa egongo dira txikientzat. Halaber, Aisihezi elkarteko jolas erraldoiak egongo dira. Egitasmo hau Loinaz/Igartza auzoan zegoen hutsunea betetzeko aurkeztu zuten. Hala, egun pare batez bada ere, ludoteka auzo horretara gerturatuko dute. Ludotekaren zabalkundea egiteaz gain, bertakoei jolas eta jostailu hezitzaile ezberdinak ezagutarazi eta astebukarran ekintza ludikoak eskainiko dira bertan. Lehengo urteko bi ludoteka ibiltariak arrakasta izan zuten, ea aurten ere jendea gerturatzeden!



21 22 LARUNBATA, IGANDEA GARIN AUZOKO JAIK.

ERAKUSKETAK

Ordutegia: 19:00-21:00.

Urtarrilaren 5etik 15era

Jazpana! Fest 2011. Argazki Rallya eta gehiago. Usurbe antzokiko Erakusketa Aretoan.



12 ASTEGUNA

21:00etan.- Zine-kluba: "Cartas al padre Jacob" filmaren emanaldia Usurbe Antzokian.

19 ASTEGUNA

21:00etan.- Zine-kluba: "HAPPYTHANKYOU MORE PLEASE" filmaren emanaldia Usurbe Antzokian.




Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2012ko urtarrila 37



Beasaingo Udala



G-puntua gurean

4

BASHERRI TALDEA
Ekoizleak eta herritarrak
elikadura osasuntsu
baten alde elkartuak

5

XABIER SARASOLA
25 urte ondoren Loinaz
abesbatza utzi du.



PARTE HARTZEA UDALAREN GILTZARRI



"Erregen pajek oparikin jaiotzana", 2011. Luisa Zurutuza.



Beasain eta beasaindarrak

"Beste errege bat", 2011. Luisa Zurutuza

"Palacio de Igartza", 2010. Luisa Zurutuza.



"Dizebi graffitigilea", 2010. Xabier Eskisabel.

Zintzilikatu zure argazkiak
www.guregipuzkoa.net
 webgunean edo bidali
udala@beasain.net
 posta elektronikora zenbait
 beasaindarrak egin dute jada.

Animatu zaitetz!



ESTEBAN LASA 12an, etxebizitza tasatuak

Viviendas tasadas en ESTEBAN LASA 12

▶ Esteban Lasa kaleko 12 behean, tasatuak diren bi etxebizitzetarako izen-emate orriak eskuragarri daude.

▶ Eskaera aurkezteko EPEA: hil honen 31ean amaitzen da.

▶ Eskaera aurkezteko TOKIA:

- 1.- Udaletxeko Harrera Bulegoan 8.30tik 13:30ra.
- 2.- Korreos-eko bulegoetan.
- 3.- Udalaren webgunean: www.beasain.net

▶ Udal Tasatuak diren etxebizitzaren erregimena: jabetza osotasunean.

▶ Etxebizitza-zozketan parte hartzeko BALDINTZAK:

- 1.- 2010eko azaroaren 30a baino lehen babes ofizialeko etxebizitza erosteko erregimenean Etxebizitzaren izen-emandan egotea.
- 2.- Beasainen erroldatuta egotea era honetan: etengabe bi azken urteetan edota azken hamar urteetan, bost urte osatzen duten egun kopuruetan, beti ere 2010eko abenduaren 1a erreferentzi data izanda.

▶ Solicitud de inscripción para acceder a dos viviendas tasadas en la calle Esteban Lasa, 12 bajo

▶ PLAZO de presentación: hasta el 31 de enero.

▶ LUGAR de presentación:

- 1.- Oficina de Atención al Ciudadano del Ayuntamiento: de 8:30 a 13:30 horas
- 2.- En la web municipal: www.beasain.net
- 3.- En las oficinas de Correos de manera reglamentariamente establecida.

▶ Régimen de las viviendas de carácter tasado municipal: plena propiedad.

▶ REQUISITOS para acceder a las citadas viviendas de protección oficial:

- 1.- Estar inscritos en Etxebide en régimen de compra de vivienda tasada con anterioridad al 30 de noviembre de 2010
- 2.- Estar empadronados en Beasain en los dos últimos años de manera ininterrumpida o en los últimos diez años durante el número de días que representen cinco años, tomando como referencia en ambos casos el 1 de diciembre de 2010.



Gabon festak igaro ondoren 2012. urteari hasiera eman diogun honetan, Udal Gobernuaren erronka eta ilusio berriekin dator. Erronka nagusia, aldizkari honetan irudi modura dator jantzia: Beasain Elkarrekin logoa plazaratu dugu, gure parte-hartze politikari irudi bat eman eta aurrerantzean, gure legealdiko giltzarri izango den herritar guztiaren partekatuko baitugu. Alero-alero, eta logoa filosofia horren zigu izaki, herri partaidetzaren inguruan zenbat gai argitaratuko ditugu. Zuek, herritarrok, baitzarete aldizkari honi zentzua ematen diozuenak.

2011 atzean utzi dugu, baina albiste oso onak utzi dizkigu urteak. Azken txanpan, abenduan hain zuzen, G-Puntua gurean geratu zen, Aitor

Sarriegiren txapelaren eskutik. Beasaingo Bertsolarien kalitatea bermatu zen Illunben. Zorionak, Aitor eta Iñaki!

Ale honetan beste hainbat gai izango dituzue irakurgai: kontsumo taldeak bertako elikagaien eta baserritarren alde egiten duen lana azalduko du; Xabier Sarasolak, 26 urte Loinatz Abesbatzaren motarra izan ostean, agur esaten digu; kultura arloan, antzerkizaleok lan interesgarriak dituzue gozatzeke Antzerki Garaia eskutik. Eta, azkenik, gure Mintzalaguna: euskara sustatzeko ekimen aparta. 2012. urtean guztiz euskalduna den herri baten alde jarraituko dugu lanean. URTE BERRI ON GUZTIO!!

Tras las fiestas navideñas, damos comienzo a 2012. El Gobierno municipal tiene nuevos retos e ilusiones. El principal reto viene, en este número de la revista, en forma de imagen. Hemos creado el logo Beasain Elkarrekin, para dar imagen a nuestra política de participación; de aquí en adelante, esa imagen será una constante en esta publicación, y todos los meses presentaremos diversos temas en torno a la participación ciudadana. Sois vosotros los que dais sentido a la revista municipal.

Hemos dejado atrás el año 2011. A punto de finalizar, nos dio una gran alegría, ya que el G-Puntua se quedó entre nosotros, gracias a la txapela conseguida por Aitor Sarriegi. En Illumbe se corroboró la calidad de los bertsolaris de Beasain. Zorionak Aitor eta Iñaki!

Este número nos acerca otros temas interesantes: el grupo de consumo nos enseña el trabajo que realiza a favor de nuestros baserritarras y sus productos. Xabier Sarasola, tras 26 años al mando, dice adiós al coro Loinatz. Los aficionados al teatro tienen un repertorio de lujo de la mano de Antzerki Garaia. Y, por último, el Mintzalaguna, una iniciativa que fomenta el uso del euskera. En 2012 seguiremos trabajando para conseguir un pueblo completamente euskaldun... URTE BERRI ON GUZTIO!!

Udal aurrekontuak: zer igo, jaitsi, mantenduko zenuke?



Amaia Álvarez

"Gazteentzat zerbait gehiago jarri dezakete. Beasainen badago gaztelekua baina 16 urtetik gorakoek ez dugu txokorik denbora pasatzeko. Hori dela eta, arratsalde asko tabernan sartuta pasatzen ditugu. Ondo legoke gazteei zuzendutako lokalak jartzea, edo urte guztian zehar jarduera desberdinak antolatzea, profil eta gustu desberdinak dituztenentzat. Hirigintzan obrak egiten dira, baina ez dut beharrezkoa ikusten. Herri batean bizi gara eta bere limitazioak eta eremuak errespetatu behar ditugu. Gainera egungo ekonomia ez dago lan handiak egiten hasteko".



Guillermo Lázaro

"En mi opinión, todo lo que se invierte en aprender, y en desarrollar las capacidades de las personas, me parece muy bien. Deberían de organizar diferentes cursos de aprendizaje, para todas las edades. Yo no entiendo mucho de presupuestos ni de economía, pero desde luego eso sería algo muy bueno para los beasaindarras. Bajaría el presupuesto en temas de peatonalización, creo que el pueblo está bien tal como está. Eso al menos en el centro; tal vez los barrios necesiten más mejoras, a ellos también convendría ayudarles".



Haizea Ezeiza

"Gazteria sailean aurrekontua igoko nuke, tailer eta jarduera desberdinak antolatzeko. Adibidez, iaz sukaldaritza tailerren izen eman genuen eta ez zen apenas jenderik etorri. Zentzu horretan, gazteok ere gure aldetik jarri behar dugu, pixkat gehiago mugitu eta kolaboratu. Kultura ere zaindu beharrezko zerbait da, eta arlo horretan dirua jaisten den bitartean guztiok aterako gara galtzen. Kultura gainera ezagutza eta sormena da, arlo ekonomikoak ez luke horren garapena oztopatu behar".

Elikagai onenak etxean

El auge de los centros comerciales en los últimos años ha repercutido de manera negativa entre los baserritarras. La situación va a peor, pero se vislumbra algo de luz debajo de esa losa pesada. El grupo Basherri Taldea refleja ese rayo de luz en la oscuridad. Ese colectivo, tras acudir a unas charlas, comenzó a gestarse en marzo de 2011. Tras ello hicieron varias visitas a los caseríos de los productores. Con las verduras ya preparadas, empezaron a recibir las cestas de dichos productos en mayo de 2011. El grupo quiere crear alianzas entre los baserritarras y la ciudadanía, en aras de conseguir la supervivencia de los caseríos y mejorar la alimentación y la salud de cada individuo, entre otros.



1 Zeintzuk dira Basherri Taldearen oinarriko printzipioak?

■ **Auto-Hornikuntza:** zer jan, nola ekoiztu, nork ekoiztu eta nola banatzen den erabakitze eskubidea.

■ **Bertako produktuak eta berezko produktuak:** inguruko produktuak bakarrik erabiltzen dituzte, eredu ekologiko bat emate aldera.

■ **Garaian garaikoa kontsumitu.**

■ **Baserriko ekoizpen eredu:** Ekoizten diren elikagaiak ahalik eta naturalen izateko konpromisoa hartzen dute.

■ **Talde dinamika/parte-hartze aktiboa:** Hilero bilerak egiten dituzte, kuotak ordaintzeko eta beste hainbat gairen bueltan hitz egiteko, ekimenaren funtzionamendua hobetzeko.

2 ¿Cómo funciona la iniciativa?

■ La iniciativa se fundamenta en la idea del intercambio: cada semana, el baserritarra prepara unas cestas con hortalizas y se reparte en una hora concreta a los miembros del grupo. A cambio, al baserritarra se le abona una cuota fija.

■ Hoy son 21 las personas que compran la cesta mensualmente.

BASHERRI TALDEKO EKOIZLEAK:

Barazkiak: Jexux Leunda (Otxotxoa Baserria) eta Pili Eskixabel.

Arrautzak: Eneko Zabaleta, Zelaa baserria.

Sagar zukua, sagardoa, fruta...: Gorka Sasieta, Urkulegi baserria.

Haragia: Alberto Irastortza (Bildotxa-Bora) eta Ana Rosa Imaz (Igartzate).

Gazta: Josu Aldasoro (Aranberri).

Bilerak: hileko azken asteartean 18:30ean Arrano Kultur Elkartean.

Banaketa: asteartero 19:00etan Nafarroa Etorbideko pilotaleku estalian. Anima zaitetz!



ALBERTO IRASTORTZA
haragi ekoizlea

“5 kiloko pake-teak prestatzen ditut, hilean behin taldekide bakoitzari banatzeko. Planifikazioa oso garrantzitsua da. Horregatik, bileretan ondo zehazten dugu zenbatek hartuko duten haragia; salmenta ondoren hiltzen dut nik animalia, bestela galerak izan ditzakegu baserritarrok. Iniziatiba hau Beasainen gehiago bultzatu beharko litzateke”.



ENEKO BUENO
Basherri taldeko kontsumitzailea

“Taldean nagoenetik, nire bizitzan jan ez ditudan barazki

ederrak dastatu ditut, garaian garaikoak: borrajak... Aukera handia dugu gure inguruan, eta elikagaien bueltan anitz ikusi eta ikasten duzu. Gure lurrak ematen duena jan behar dugu, guretzat osasungarria izan ez ezik, lurra berarentzat aberasgarria da-eta”.



JEXUX LEUNDA
barazki ekoizlea

“Jendeari agerriarazi nahi diogu egun bizi dugun egoera larria dela, asko ez dira hortaz ja-

betzen. Kalitatearen gainera jartzen dute erosotasuna eta eguneroko estresa zein presak. Guk zerbitzu ezin hobea eskaintzen dugu, gertutasuna eta konfiantza. Eta noski, kalitate oneneko barazkiak, garaian garaikoak. Jendea animatzen dut talde honetan parte-hartzera”.

XABIER SARASOLA
Loinatz abesbatzako zuzendari-ohia

Zorte on eta mila esker, Xabier

Gogoan ditu txistulari zeneko garai haiek. Oinarri gisa baliagarri izan zitzaizkion urteak izan ziren. Garai hartan Beasainen ez zegoen abesbatzarik, ez eta biolinik jotzen zuenik ere. Bere izakera trebeak eta musikarekiko zuen maite-gar hark bultzatu zuen, urte batzuren buruan, Xabier Sarasola Loinatz Abesbatzako zuzendari izatera. 26 urte pasa dira orduztik. Oroitzapenak barra-barra ditu, eta bere autoerrealizazioan talde koral honek izan duen garrantzia berresten du. "Ordezkarri ona geratzen da Loinatzen zuzendaritzapean, lasai noa beraz", dio.

Mende laurdena bete duzu Loinatz abesbatzean. Zure bizitza ia erdia.

Bai, 26 urte bete ditut hil honetan bertan. 23 bete berri hasi nitzen eta orain 52 ditut. Oso gustura aritu naiz. Hasi nintzenean gehiena zekienak 0 zekien, nik agian 0,1 jakingo nuen. Arrastorik ere ez nuen, baina Juantxo Alkaiagak eta beste zenbaitek animatu ninduten abesbatzako zuzendari izatera. Gaur arte.

Zerk bultzatu zaitu uztera?

Ez dut astirik, eta benetan atsedena behar dut. Konposizioan nahi dut murgildu, nire kabuz proiektu mordoxka dut eta horietan nahi dut zentratu. Horrek ez du esan nahi abesbatza guztiz utziko dudarik. Nik uste dut noizbehinka bertan abesten jarraituko dudala, emaztea bera ere koroan dago, eta

"Cuando empecé en el coro hace ya 26 años no tenía ni idea. Pero, empujado por Juantxo Alkaiaga y algún otro, me lancé a la piscina. Y hasta hoy"

"Necesito un poco de descanso y quiero centrarme de lleno en la composición. Aún así, no dejaro del todo la formación coral; si puedo, formaré parte cantando en ella"

"Conocer a fondo nuestro folclore me ha servido para asentar mis bases musicales. Ha sido fundamental durante mi carrera"

beraz, lotuta jarraituko dut.

Eta erreleboa zer moduzkoa da?

Primerakoa. Aurretik ez badut utzi ordezkarri aproposik aurkitu ez nuelako da. Juncal Guerrero andoaindarra izango da zuzendaria, Donostiako Kontserbatorioa, elkar ondo ezagutzen dugu. Gainera zerbait garrantzitsua dauka: ilusioa. Gaztea da, oso gogotsu dago eta baliabide eta kalitate handiko pertsona da. Orain bai lasai noala!

Urte hauetan guztietan zuregan hazkunde edo eraldapen bat eman dela uste duzu?

Musika arloan, zalantzarik gabe. Musika tresna desberdinak nola jo ikasteko ikasketak egin nituen, kantuan ere hasi nintzen, lehiaketetan epai-mahai izaten naiz, konposizioan ere murgilduta nago. Hasi nintzenetik hona asko ikasi dut, mila gauza egin ditut eta beste mila ikasi ere. Baina ni pertsona bezala lehengo bera naiz, funtsean ez naiz aldatu. Esan beharra dut, txistu munduak asko erakutsi ninduela nire bide profesionalean. Zure herriko folklorea gertutik ezagutzeak oinarri oso sendoa ematen dizu, ondoren beste musika batzuetara salto egiteko.

Orain konposizioan murgilduko zara, ezta? Zein egitasmo dituzu esku artean?

KEA ahots-musika taldearen kide naiz eta hainbat emanaldi ditugu, Bilbon edo Madrilan, esaterako. Bestetik, ikastaro dezente ari naiz ematen eta horrez gain, hainbat konposizio eskakizun iritsi zaizkit Irundik, Japondik, Durangotik, Zaragozatik... Denbora behar dut hori guztia aurrera eramateko. Niretzat aro berri bat hastera doa, eta irrikitan nago.



2012ko
Beasain-Ordizia
ANTZERKI GARAIA
Urtarrila-Apirila

Un año más, los beasaindarras podrán disfrutar del mejor teatro gracias al ciclo Antzerki Garaia. Esta iniciativa, organizada por los ayuntamientos de Beasain y Ordizia, ofrecerá ocho obras, que serán representadas en Usurbe y Herri Antzokia, respectivamente. Las entradas se pueden adquirir en las taquillas de los teatros, y en Servikutxa para las sesiones de Beasain.



UNAI BAZTARRIKA
Kultura eta Euskara
zinegotzia

"Ordizia eta Beasaingo antzokiak antzeztutako istorioez hornituko dira. Eszenaren magia eta errealitate bikoiztuak oholztan.

Txikian zein handian. Eskura dugun harribitxia eta bertatik bertara. On egin!"

Umorea eta intriga pil-pilean Usurben



URTARRILAK 13, ostirala
"Crimen Perfecto"

Frederick Knott antzerkigile ingelesak idatzitako obra da. BBCn estreinatu zen 1952an eta, ondotik, Londresko eta New York-eko antzokietan eman zuten. Bi urteren buruan, filma egin zuten Knott-en beraren gidoiarekin eta Alfred Hitchcock-en zuzendaritzapean. Margot emaztea hil nahi du Tony Wendice-k, haren diruaz jabetzeko.

Lagun zahar bati txantaia egin dio Margoten etxera sartu eta, honek telefono deia hartzen duenean, ito dezan. Planak, ordea, huts egingo du eta Margotek berak hilko du hiltzailea. Biktima izatetik hilketaren susmagarri izatera pasako da Margot.

EGILEA/Autor: Frederick Knott.

ZUZENDARIA/Director: Victor Conde.

AKTOREAK/Actores: Jorge Sanz, Elena Furiase eta Pablo Puyol.



OTSAILAK 3,
"Wilt Panpina puzgarriaren hilketa"

Thom Sharpe benetako erreferentia da gaur egungo umorezko literaturan. Mende honetako libururik komikoenetakoa dugu Wilt, eta dagoeneko 10 milioi baino gehiago saldu dira. Bertan, literatura irakaslea, desagertutako emaztea, hormigoian sartutako panpina puzgarria, poliziaren ikerketa

zentzugabea eta beste egoera surrealista asko nahasten dira. Sharpek haien guztien kontra egiten du, iseka eginez. Familiari, hezkuntzari, lesbiane, aberatsei, behartsuei, ikasleei, poliziar, elizari, haragi pastelei, komunerako detergenteari barre egiten die. Ezerk ere ez dio ihes egiten haren ikuspegi ironikoari.

EGILEA/Autor: Tom Sharpe.

ZUZENDARIA/Director: Garbi Losada.

AKTOREAK/Actores: Mikel Laskurain, Isidoro Fernandez, Aitziber Garmendia, Miren Gojenola, Koldo Losada eta Fernando Ruiz.



MARTXOAK 2, ostirala
"Ipar Haizearen kontra"

Leo Leike recibe un mensaje por error de una desconocida llamada Emmi. Como es educado, le contesta y como él la atrae, ella escribe de nuevo. Así, poco a poco, se entabla un diálogo en el que no hay marcha atrás. Parece sólo una cuestión de tiempo que se conozcan en persona, pero la idea los altera tan profundamente que prefieren posponer el encuentro. ¿Sobrevivirían las emociones enviadas,

recibidas y guardadas un encuentro real?

EGILEA/Autor: Jesus Mari Elejalde.

ZUZENDARIA/Director: Fernando Bernués.

AKTOREAK/Actores: Itziar Aienza eta Joseba Apaolaza.



Martxoak 30, ostirala
"La lechuga"

Elkarri gorroto dioten familia baten tira-birak kontatzen ditu antzezlanak. Aitak egoera begetatiboan eman ditu bederatzi urte, eta alaba batek eta haren senarrak zaindu dute denbora guztian. Aitaren urtebetetzear, gaixoaren beste semeak zaintzea proposatuko dio senarrak. Baina inork ez du nahi izango aita zaindu.

EGILEA/Autor: César Sierra.

ZUZENDARIA/Director: Rosita Nicolet.

AKTOREAK/Actores: Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Mari Cruz Melgosa, Gabriel Ocina eta Galder Pérez.

INFORMAZIO ZABALAGO:

ABONO

El precio del abono para la temporada es de 60 €. Ventajas y condiciones:

1. Se podrá asistir a todas las funciones que se presenten en este programa, sean de Ordizia o Beasain.
2. Los abonados y las abonadas recibirán información puntual sobre la programación teatral que se desarrolle en el futuro en cualquier de los dos municipios.

GRUPOS ORGANIZADOS

Los colectivos culturales y educativos organizados que soliciten un cupo mayor de 10 entradas, tendrán un precio especial de 8 € por entrada. Las solicitudes de entradas para grupos deberán realizarse por anticipado, en el Departamento de Cultura del Ayuntamiento correspondiente.

Mintzalagunak Ai geala!!!

Mintzalagun egitasmoa martxan da berriro. Ekimen honen helburua euskara ikasleei eta euskara erabiltzailerak ez direnei klasetik kanpo euskara erabiltzeko aukerak eta euskaraz hitz egiteko harreman sarea eskaintzea da. 2010-11 ikasturtean 49 lagun aritu ziren. Aurten dagoeneko 17 talde daude Orain, urtarrilean, berriz ere kanpaina egingo da eta mintzalagunekin hasteko aukera izango da.



Practica euskera con Mintzalaguna!

■ Mintzalaguna quiere impulsar el aprendizaje del euskera a través de la interacción entre los que dominan el idioma bien y los que no.

■ En estos momentos hay 18 voluntarios (mintzalagunak) que de forma altruista ayudan a utilizar el euskera en la calle.

■ Además de reunirse todas las semanas, estos grupos tienen la oportunidad de realizar otras actividades en el municipio: van al teatro, a conferencias, a los premios Igartza, a la sidrería... Todos juntos y hablando un idioma común: el euskera.

■ El ayudante Mintzalaguna se compromete a reunirse una vez por semana con dos estudiantes o con euskaldun berriak que no son estudiantes del euskaltegi.



TXEMA LOZANO
euskaldun berria

“Izatez Castillakoa naiz, baina urteak daramatzat hemen. Barakaldon hasi nintzen euskara ikasten. Ondoren Beasainera etorri eta ongi ikasteko erabakia hartu nuen. Ikasi ahala mintzatzea garrantzitsua da. Batetik ikastaroa, baina ondoren hitz egin behar da. Nire kasuan udan zenbait barnetegitan egon naiz eta ikasgelatik kanpo ere euskaraz aritzen ginen. Hizkuntza ongi menderatzeko inguruan entzun behar da eta gertukoekin hitz egin. Oso pozik nago lortu duanarekin baina oraindik hobetzen jarraitu nahi dut”.



**JUAN MARI
APAOLAZA**
euskaldun zaharra

“Euskararen aldeko konpromisoak bultzatu ninduen Mintzalagunaren parte hartzerak. Oso ekimen interesgarria da, norberarentzat aberasgarria dena, jende berria ezagutu eta lagunak egiten baitituzu. Borondatea jartzen duten pertsona hauek gure laguntza txikia ezinbestekoa dute. Nire kasuan gainera oso pertsona irekiak eta atseginak tokatu zaizkit, beraz dena oso erraza izan da. Euskaraz praktikatzeko lasaitasuna ematen die, oso garrantzitsua da lotsa galtzea. Asko saiatzen dira eta oztupo ekonomikoak jarriz gero jendea ez da animatuko ikastera. Matrikulak merketu beharko lirateke nire ustez”.



JOXEMI COBOS
euskaldun berria

“20 bat urterekin AEK-n izena eman nuen. Ondoren utzi egin nuen. Orain dela bi urte berriz hasi nintzen ikasten (Udal Euskaltegian), baina utzi behar izan nuen. Baina mintzalaguna zela eta, Udal Euskaltegitik deitu zidaten. Ekimen hau asko gustatzen zait. Nire helburua kalean euskaraz hitz egitea da, aditzak eta niretzat zailtasuna duten zenbait hitz ongi erabiltzea. Nik euskaraz bizi nahi dut, hizkuntza asko gustatzen zait eta hori da nire xedea, guztiz menderatzea”.

Lehenengo Mintzodromoa arrakastatsua



Mintzalagunek proposatuta eta mintzalagunen, Udal Euskaltegiaren eta AEK euskaltegiaren laguntzarekin MINTZODROMOA izeneko ekimena antolatu zen abenduaren 17an. Plazapen euskara ikasten ari den jendea, euskara ikasi duenarekin, baina erabiltzailea ez den jendearekin eta

euskal hiztunekin nahasi zen berriketa lasaian txokolata hartuz. Bertaratu zirenek (92 lagun bi txandatan) solasaldirako eta euskara praktikatzeko aukera paregabea izan zuten. Goenkaleko lagunak ezagutzeko eta beraiekin hitz egiteko aukera ere izan zuten bertaratuak.

Para participar:

*El euskaltegi realizará una nueva campaña este mismo mes. El centro intenta crear también un grupo de padres.

*Tanto para ayudantes como para mintzalagun, hay diversas formas de contacto:

• El servicio de Euskera del Ayuntamiento de Beasain: **Tfno: 943028063.**

• El Euskaltegi municipal: **Tfno: 943028100.**

• AEK: **Tfno: 943 88 93 40.**

• Por mail: **mintzalaguna@beasain.net**



BALORAZIOA

Egin diren batzarretan guztira 450 herritarretik gora izan dira parte hartu dutenak. Ez zenbakitan bakarrik, ekarpenetan ere oso aberatsak izan dira batzar horiek. Zentzu horretan, Udalak positibo ikusten du parte-hartze zifra hori. Hala ere autokritika ere egin beharra dago, eta hurrengoetarako, deialdia modu egokiagoan egitearen beharra ikusi da, baita denboran azkarragoa izatea ere. Bestalde, hurrengorako herrigunea leku gehiagotan banatu beharra ere ikusi da, batzarrak erosoagoak eta emankoragoak izate aldera.

Herritarren ekarpenak mota guztietakoak izan dira, baina gehienak udal zerbitzuen inguruko kexak izan dira. Argiteria, zabor bilketak, ur zikinen bideratzeak, arratoien problematika, elkarbitzita arazoak, trafikoa... beste askoren artean.

ZEINTZUK DIRA ORAIN UDALAK EMAN BEHARRERAKO DATOZEN URRATSAK?

Batzar erronda hau ez da bere horretan hasi eta bukatzeko helburuarekin egin, eta honek datozen hilabeteetan eman beharreko urratsak zehaztera behartzen du Udala. Hurrengo pausoak ondorengo eskema orokorrean zehazten dira:

- Kexa eta proposamen guztiak txosten batean bildu dira. Txosten hori eta hurrengo pausoen azalpena urtarrilean plazaratuko dira. Guztia herritar guztien eskuetan ipiniko da, ahalik eta erraztasun handienak emateko moduan.
- Orokorrean bi irizpideren baitan sailkatu dira proposamen hauek:
 - Bat, lehenbailehen eta lanketa berezirik gabe konpondu daitezkeen kexak eta bide emateko modukoak diren proposamenak. Hauei, landu ditzakeen batzordea izendatuko zaie eta hurrena egiteko diren batzordeetara bideratuko dira.

Mila esker auzoetako

Lehenik eta behin, Udalak eskerrak eman nahi dizkie auzoetako batzarretan parte hartu duten guztiei. Beasaingo Udal gobernuak auzoetako lehen bilera erronda

El Ayuntamiento de Beasain agradece la participación de la ciudadanía en las reuniones celebradas en distintos barrios

Como autocrítica: el Gobierno municipal ha detectado la necesidad de organizar mejor y de forma más rápida y eficaz las convocatorias para las reuniones de los barrios

En total, han sido unos 450 los que han participado en ellas. También ha sido elevado el número de aportaciones recogidas por el Consistorio



batzarretan parte hartzeagatik!!

hori herritarren parte hartzean oinarritutako udal kudeaketa bat lortzeko lehen pauso bezala ulertzen du. Udalak, etorkizunean egiteko modu hauek ohikoagoak eta emankorragoak izan daitezten lanean jarraitzeko borondate irmoa duela adierazi nahi du.

Todas las quejas y sugerencias se han recogido en un informe, que se publicará este mismo mes

Pasos a dar en el futuro: dar respuesta a las quejas y propuestas planteadas por la ciudadanía. El Ayuntamiento quiere garantizar que los pasos que se den vayan de la mano con los intereses de las y los beasaindarras

- Bigarren taldean, lanketa bereziak behar dituzten kexa eta proposamenak bildu dira. Adibidez, auzo desberdinetan ur fekalik jasotzen ez dela eta etorkizunean jaso daitezten eman beharreko pausoen azterketa... Lanketa hauek dagokien batzordera bideratuko dira, bertatik soluzio bideak diseinatze-ko proposamenak jaso eta eman beharreko pausoen diseinuan eragile guztiek partu hartu ahal izan dezaten.

Urrats hauen guztien helburua herritarren aldetik jaso diren kezka guztiei erantzun bat ematea da. Jakina da batzuek erantzun erraza edo egingarria izan dezaketela, beste batzuek, aldiz, ezinezko edo behintzat Udalarenak ez diren eskumenen baitakoak izango direla, eta beste batzuk agian ekonomikoki bideragarri izateko arazoak izan ditzaketela. Dena den, Udalaren konpromisoa guztiei dagokien lanketa eskaintzea da, eta lanketa hau parte-hartzailea izan dadin tresnak gaitzea, honek bermatuko duelako ematen diren pausok herritarren interesekin bat joatea eta bidea lokatu daitekeen kasuetan, herri guztia izatea lokatua, hots, zelaia berdea bihurtzen lagunduko duen subjektua.

Etorkizunean auzoetako bilerak lan tresna normalizatu izan daitezten lan egingo du Beasaingo Udalak, beste tresna batzuekin batera, udalaren kudeaketan herritarren parte-hartzea normalizatzeko pausok emateko xedez.

AHT-REN LANEK KEZKA SORTU DUTE AUZOTARRENGAN

Beasaingo auzokideekin izandako bileretan kezka orokor bat azalaratu zen. Kezka hori Abiadura Handiko Trenaren obren ondorioz sortu da. Lan horiek hainbat kalte eragin dituzte zenbait auzoetan. Udalak herritarrei euren erreklamazioak udaletxean bertan aurkezteko gonbitea luzatu zien, gaiaren bueltan eskumena duten erakundeen bitartez bideratzeko konpromisoa hartuz.

Guztira 20 idatzi jaso zituen Udalak (horiei aurretik irekitako beste bi espediente gehitu behar zaizkie). Aurkeztutako txosten gehienak Gudugarreta-Ittola, Loinatz-San Martin eta Erauskin auzoetatik datoz.

Azaldutako gaien artean daude: obren eraginez kaltetuak izan diren akuiferoen eta iturburuen birjarpena, kaltetutako lursailalara sarbidea konpontzea, ezpondak edo euri-uren eta estolderiaren arazoari irtenbidea ematea, besteak beste. 2011ko abenduaren 15ean Zerbitzuetako zinegotziak, Mari Mar Celayak, arkitektu-aholkulariari eta Euskal Trenbide Sareko bi kideri aurkeztutako idatzien berri eman zien, azken hauek txosten horiek aztertu eta ahalik eta azkarren erantzuteko konpromisoa hartu zutelarik.

G-puntua, Beas

Uno, ganador del Campeonato de Gipuzkoa; el otro, cuarto clasificado en la final de G-Puntua. Aitor Sarriegi e Iñaki Apalategi han colocado a Beasain en la cúspide del bertsolarismo. Esos dos jóvenes

AITOR SARRIEGI

“Askotan ez dakizu aldarte oneko egongo zaren; finalaren egunean, ordea, oso lasai jaiki nintzen”

Txapela etxeko apalaren batean jarriko zenuen jada, ez?

Ba oraindik ez dut pentsatu non jarriko dudan, garbi daukat etxean ez dudala jarriko, museo estilo hori ez zait gustatzen, hots, etxean bistan edukitzea jendeak ikus dezan. Amak bistan nahi badu, bere etxean jarriko dugu, baina nirean ez!

Illunben bi final (2007 eta 2011), eta BECen bat (2009) bizi ondoren, azkenean txapela lortu duzu. Ezinezkotzat jo al zenuen iraganean?

Haiekin alderatuta, benetako irabazteko aukera gehienak azken honetan nituela banekien. Hautagai indartsuak zeuden, baina kalkuluan eginda banekien garaipena lorzeko benetan Illunbekoan nituela. Horrek presio bidea izan beharko luke berez, baina harrituta nengoen nire buruarekin igande goiz hartan: oso lasai jaiki nintzen. Askotan ez dakizu zer nolako aldarte izango duzun; badirudi finaleko egun hartan ona nuela.

Nola bizi izan zenuen final hura?

Ba egia esan momentuan ez zara benetan kontziente inguruan gertatzen denari buruz. Nirean zentratu nintzen eta uste dut lehiaketa osoan halako jarrera erakutsi genuela Iñakik eta biok.

Hankak ez al dira dardarka hasten 9.000 pertsonaren aurrean bertsoa bota behar duzunean?

Bitxia da, baina guretzat are eta jende gehiago hobeto. Adibidez, plaza batean bertso eskax bat botaz gero, txalo zaparrada beti jasotzen duzu, baina argiago ikusten da zein bertso gustatu zaien gehiago. Illunbe bezalako leku batean, aldiz, txalo txikiena ere zaparrada iruditzen zaizu, berotasun hori denbora guztian sentitzen duzu. Harrigarria da, txalo zaparrada hori olatu forman etortzen da eta harrapatzen zaitu. Oso sentsazio ederra da.

Elkarrizketa batean aipatzen duzu bertsoak barrutik eta kanpotik ezberdin ikusten direla. Zein zentzutan?

Beno, hor pantaila erraldoiak zerikusi handia du. Pantailarik gabe, entzuleak ikusiko ez lukeena salatzen dugu gure arpegiekin. Hau da, bertsoa bota ondoren, agian hain ona izan ez denaren sentsazioarekin geratzen zara, baina ikusleek ordea oso ondo erantzuten dutela ikusten duzu. Hori esan nahi nuen esaldi horrekin.

Beasainera txapela buruan zenuela iristean, zer nolako harrera izan du Aitor Sarriegik herrian?

Harrera primerakoa izan da. Pentsa, inoiz harremanik izan ez dudan jendeak ere zoriondu nau! Oso gustura, ez nuen espero hainbesterako izango zenik. Beasaindik kanpo ere, bailara mailan, zoriondu gaituzte ni eta Iñaki.

Hurrengo urratsa, Euskal Herriko Txapelketa eskuratzea al da? Edo badago tartean beste helburu xumeagorik?

Opor batzuk hartu nituen txapelketatik bueltan. Des-kantsatzeko beharra nuen. Hil honetatik aurrera baditut bost edo sei bertso saio, beste pare bat utzi egin behar izan ditut, ez bainaz iristen. Baina tira, hori da guk nahi duguna, bertso-saioetan parte hartu, beraz ezin gara kexatu!



Beasainen gozagarri

han demostrado, además de valentía, constancia y calidad, que son grandes bertsolaris. Bajo estas líneas relatan cómo vivieron la final de Illunbe el pasado 18 de diciembre.

IÑAKI APALATEGI

“76 pertsona hasi ginen txapelketan. Laugarren postua eskuratzea ametsa izan zen niretzat”

Maila goreneko bertsolarien artean laugarren amaitu zenuen. Ez da marka makala, ez?

Niretzat egundoko marka izan da. Pentsatu 76 pertsona hasi ginela lehiatzen, eta horietatik laugarren geratzea ez dago batere gaizki. Txapeleta denboran asko luzatu da eta egia esan nekea nabaritu nuen zenbait momentutan. Baina finalaurdenetako fasea pasa ondoren, neke hori joan eta ilusioa gailendu zen nigan. Final erdian sartzea handia izan bazen, imajinatu finalera iritsi eta laugarren postua eskuratzea!

Herriko lagun bat oholtza gainean izateak babes edo lasaitasun moduko bat emango du, ez?

Ez gintuzten elkarren ondoan jarri, eta ezin genuen askorik hitz egin. Baina, adibidez, Aitorrek bertsoa amaitu eta buelta ematen zuenean, keinurik edo bota nion nire impresioa berari transmititzeko. Nik uste dut elkarri lagundu geniola nahiz eta hitz egiteko aukera handirik izan ez genuen! Saiatu ginen konplizitatea izaten eta elkar komunikatzen, bai.

Bi beasaindar G-puntuko txapela irabazteko azken txanpan. Herriko gazteei agian bertsotan aritzeko kuriositate edo zirrara sartuko zitzaien...

Bertso eskolako batzuk joan ziren finala ikustera. Bate-tik edo bestetik iristen zaizkizu jendearen iruzkinak, eta badirudi gazte asko dagoela bertsotan aritzeko zirrara hori duena. Eremua nahiko nahasia den arren, ezin gara kexatu: Beasainen zein bailaran beti izan da bertso zaletasuna. Hori osasuna bezalaxe da, ez dagoenean orduantxe botatzen duzu faltan. Nik uste dut bi beasaindar finalera iristeak izango duela eraginik hemen inguruko gazteengan.

Halako final baten ostean, atsedetik izaten al da? Edo proiekturik baduzue esku artean epe labur-ertainera?

Txapelketan asko zentratu nintzen eta hainbat saio emateari uko egin nion, bata eta bestea ez nahaste- rren. Ez dakit ongi egin nuen, baina momentu horretan txapelketan nuen burua, eta batzuetan ez da ona izaten burua hainbat lekutan edukitzea. Beraz, utzitako saio horiek egitea nahiko nuke, plazaz plaza aritu, hori da eta bertsolarion egoitza nagusia.



Bertsomovieda lehiaketa abian da

Arrano Kultur Elkarteak urteak da-ramatza Bertso Paper lehiaketa an- tolatzen. “Modalidadea gainbeheran ote zegoen hausnartu genuen. Horri buelta bat emateko, eta teknologia berriez baliatuz, Interneten hainbat produkzio aztertu genituen. Hortik abiatuz, lehiaketa birplanteatzea erabaki genuen, formatu aldaketa bat emanaz”, dio Aitor Sarriegik. Testuinguru horretan sortu dute Bertsomovieda, hots, bertsoak oina-

rritzat dituen bideo lehiaketa. Iñaki Apalategiren esanetan, “formatua aldatu arren, bertsoa izango da abia- puntua”. “Parte hartzaileen bideoak webgunean sartuko ditugu”.

Bertsomovieda lehiaketa urtarriletik martxora bitarte izango da. Beraz, hasi prestatzen zuen bideoak!!

Hemen duzu webgunearen helbidea:

www.bertsomovieda.com